

45 egunez egun

2013ko martxoa



Martxoaren 14an iritsiko da Korrika 18 Beasaina

2 iritzia 3 aurrekontuak 4 ongizatea 5 zinegotzi berriak: Garbiñe Zurutuza eta
Idoia Baztarrika 6-7 hondakinak 8 Euska Herriko Itzulia 9-11 laburrak 12 agenda

Beasaingo udal aldizkaria
beasain



Denok Gogo batez

Aurrekontuak onartuta ditugun honetan, hauen exekuzio egokia dugu orain erronkarik nagusia Udalean. Herritarren eskaerei ahalik eta modu egokienean erantzuteko, martxan ditugun eta abian jarriko ditugun hainbat proiektu herritarren parte hartzearekin landuko ditugu.

Bestetik, dagoeneko bidea egiten hasita dagoen berdintasun foroa indartuko dugu, emakumeon ikuspegia eta beharrak ere, burutzen ditugun lan guzti horietan islada izan dezaten. Behar beharrezkoa dugu genero ikuspegia esparru guztietara zabaltzea, gizartearen aldaketaren bat sumatu ahal izateko; aldaketa hau arlo desberdinetara zabaltzeko, aldaketa sakona suposatzen duelako, alegia.

Azkenik, hezkuntzak guzti honetan duen garrantzia ahaztu ezin dugulako, honi ere bultzada berezia eman nahi diogu. Horretarako, lehen urratsa eman dugu jada Herriko Eskola Kontseiluaren sorrerarekin; gunera hau herriko hezkuntzaren topaleku izango da.

Eskerrik asko hau guztia gauzatzeko

zuen borondatea eta babesa adierazi diguzuen herritar eta eragile guztioi. Pauso txikiak emanez, bidea eginez goazelako. Denok Gogo Batez.

•• **Herritarren eskaerei ahalik eta modu egokienean erantzuteko, hainbat proiektu herritarren parte hartzearekin landuko ditugu** ••

Una vez aprobados los presupuestos, el mayor reto del Ayuntamiento es ejecutarlos de la mejor manera posible. En ese sentido, y para responder de la manera

más directa a las peticiones de la ciudadanía, elaboraremos varios procesos de participación en algunos de los proyectos que ya están en marcha o lo estarán en breve.

A su vez, y para que podamos percibir cambios en la sociedad, fortaleceremos el Foro por la Igualdad, para que el punto de vista de las mujeres esté presente en todos los proyectos. Tampoco podemos olvidar la importancia que tiene en nuestra sociedad la educación, la cual trataremos de impulsar. Para ello, se ha creado el Consejo Escolar Municipal, donde se trabajarán temas relacionados con la educación en Beasain.

Muchas gracias a todas las personas y colectivos que habéis mostrado interés y apoyo hacia todos estos proyectos. Paso a paso, vamos haciendo el camino. Denok Gogo Batez.

zezilia herrador • udaletik



inkesta Martxoaren 8a bezalako egunak beharrezkoak direla uste al duzu?



Rosario Fidalgo

Todo lo que se hace durante el año lo veo necesario, pero también veo necesario días como éste, para subrayarlo. Yo siempre he trabajado en casa y nunca se nos ha valorado, ni se nos valora aún. Es importante que trabajen las mujeres, para que el día de mañana tengamos los mismos derechos.



Esti Rodrigo

Nire ustez egunero izan beharko litzateke emakumearen eguna, baina, oraindik ere horrelako egun seinatuak egotea beharrezkoa ikusten dut. Azkenean, egun hau ospatu behar ez izatea seinale ona izango litzateke, baina, oraingoz, beharrezkoa da emakumeen eskubideen alde borroka egiteko.



Inazio Artola

Emakumea kalean eta etxean bertan ere oraindik ez da behar bezala baloratzen. Hala egingo balitz eskubideak izango litzukeela uste dut. Denok leku beretik ateratakoak gara, baina... Ni konbentzita nago zapalkuntza hori erlijiotik datorrela. Pentsa erlijio guztiek zer nola tratatzen duten emakumea.

Aurrekontua, akordioaren bidetik

Udal Gobernuak eta PSEk adostu dute 2013ko aurrekontua; gizarte arloa bereziki zaindu dute

Beasaingo Udalak dagoeneko badu 2013. urterako aurrekontua. Udal Gobernuak (Bildu eta Aralar) eta PSE-EEK lortu duten akordioari esker onartu zuen udalbatzak, urtarileko osoko bilkuran. Udalak guztira 15 milioi euro izango ditu, eta horietatik 13,8 milioi osatuko dute udalaren aurrekontu propioa.

Diru sarrerei dagokionean, egoera ekonomikoak bere eragina izan du, eta duela zazpi urteko kopuruetan dabilzala azaldu dute udal arduradunek. «Momentu zaila» izan arren, akordioaren bidetik «ezkerreko aurrekontua aurrera ateratzea» lortu dutela azaldu dute aipatutako bi alderdiek. Hala,

hainbat arlotan murrizketak egin badi-tuzte ere, gizarte arloa bereziki zain-tzen saiatu dira; hain zuzen ere, hori izan da diru partida igo duen atal ba-karra. Inbertsioei dagokionean, bide-gorriaren ardatz nagusia, Barandia-ran parkea estaltzea eta Esteban Lasa kaleko hobekuntzak izango dira proiektu nagusiak.

aurrekontu osoa

15.136.894 €

atalak:

- Aurrekontu osoa.
..... 15.136.894 €
- Udalaren aurrekontu propioa.
..... 13.849.463 €
- Beasain Lantzen S.A.
..... 738.404 €
- Kirolaren udal fundazioa.
..... 532.573 €
- Loinatz musika eskola.
..... 587.543 €
- Udal euskaltegia.
..... 387.534 €

udal sailak:

- Zerbitzuak 3.627.508 €
- Ongizatea 1.665.248 €
- Hirigintza 1.065.817 €
- Kultura 1.077.291 €
- Antolakuntza 1.044.567 €
- Hezkuntza 702.843 €
- Euskara 342.084 €
- Gazteria 263.724 €
- Landa ingurunea 172.555 €
- Igartzak multzoa 145.400 €
- Ingurugiroa 104.160 €
- Merkataritza 56.852 €
- Parte-hartzea eta migrazioa
..... 30.000 €
- Berdintasuna 9.633 €

inbertsioak:

- Bidegorria 275.000 €
- Barandiaran parkea 250.000 €
- Gurutze Gorria 120.000 €
- Esteban Lasa kalea 190.000 €
- Argiteria publikoa 147.517 €
- Baserri bideak 73.673 €
- Lurzorua erostea 70.000 €
- Kultur etxeko teilatua 50.000 €
- Zaborguneak garbitu 50.000 €
- TAO sistema 50.000 €
- Zinea digitalizatzea 40.000 €
- Igartzako eraikinak 33.400 €

El Ayuntamiento de Beasain ha aprobado el presupuesto municipal de 2013, gracias al acuerdo logrado entre el Gobierno Municipal (Bildu y Aralar) y el PSE-EE. Este año el Ayuntamiento dispondrá de 15 millones de euros, de los cuales 13,8 millones forman el presupuesto propio del consistorio. La situación económica actual se ha visto refle-

jada en el apartado de ingresos, y según los responsables del Ayuntamiento, dicha cantidad ronda la de hace siete años. Aunque estemos en un momento difícil, dicho acuerdo ha hecho posible «sacar adelante un presupuesto de iz-

quierdas» según los partidos antes mencionados. Se han tenido que hacer ajustes en la mayoría de los capítulos, pero han hecho especial hincapié en el ámbito social, y es ésta la única partida que ha subido este año. En cuanto a las inversiones, el ramal principal del bidegorri, cubrir la plaza Barandiaran y las mejoras de la calle Esteban Lasa serán los principales proyectos del Ayuntamiento.

Gizarte zerbitzuak auzoetara

Herrigunetik kanpo gelditzen diren auzoetara joango da Udala, auzo horietan laguntza behar duten familien berri izan eta arazoan aurrean duen eskaintza azaltzeko

Udaleko gizarte zerbitzuak udaletxetik atera eta herriko auzo ezberdinetara zabalduko ditu Udalak, auzo bakoitzak dituen beharrak gertutik ezagutzeko asmoz: Arriaran, Astigarreta, Garin, Matxinbenta eta Beasainmendirara joango da Udala. Azken urteetan gizarte zerbitzuen inguruko informazioa eman bada ere, herriguneko auzotik kanpo geratzen diren auzoekin hartu-eman gutxi dagoela sentitu du Udalak. Horregatik, udaletxetik irten eta auzo bakoitzak duen erregidorearekin bilduko dira, eta auzoan laguntza beharrean dagoen jenderik dagoen jakingo dute. Horrez gain, auzo bakoitzean bilerak bat egingo dute udaletxeko gizarte zerbitzuetakoek. Bilerak horretan zer zerbitzu eskaintzen duten helaraziko diete auzotarrei eta baita Udalak zer baliabide dauzkan azaldu ere. Arriaran auzoan izango da lehen bilerak, Intxaurpe elkartearen hilaren 5ean 12:00etan.



Herrigunetik kanpoko auzoetan egingo dituzte bilerak. Irudian Garin auzoa.

Los Servicios Sociales del Ayuntamiento van a salir del Ayuntamiento para conocer las necesidades que existen en los barrios que se encuentran en las afueras del núcleo urbano. Para eso, primero se reunirán con los regidores que existen

en cada barrio para previsualizar las necesidades existentes, y después se realizarán reuniones con todas las personas de los barrios. Los barrios que se visitarán son: Arriaran, Astigarreta, Garin, Matxinbenta y Beasainmendi.

Barandiaran parkea estaliko dute

Barandiaran parkeko zati bat estaliko dute, herrian beste gune estali bat egon dadin, eta beste zati bati berritu bat ere emango diote. Bederatzi hilabete inguru iraungo dute lanek.

Herrian leku publiko estali gutxi daudela eta, Beasaingo Udalak Barandiaran parkeko zati bat estaliko du. Horrela, haurren jolaslekua estalita geratuko da. Estalpeak kristalera biribilak izango ditu, argia sartzeko. Parkeko zuhaitzak mantenduko dituzte, eta bankuak eta argiteria berritu egingo dituzte. Lanek, 9 hilabete inguru iraungo dute.

Libre geratuko den zatia eman beharreko erabileraren inguruan, datozen egunetan, 2 saioko lanketa egingo du Udalak «12-16 urte bitarteko gazteekin, hauen beharrak asetzeko helburuarekin», diote Udaletik.



Viendo que en el municipio hay pocas zonas cubiertas, se cubrirá una parte del parque Barandiaran. Las obras durarán aproximadamente nueve meses.

El Ayuntamiento se reunirá con jóvenes de entre 12 y 16 años con el objetivo de conocer mejor sus necesidades y poder darles respuesta a las mismas.

Garbiñe Zurutuza Kultura eta Euskara zinegotzia

“Herriko proiektua eta euskarari lotutakoak bultzatuko ditugu”

Garbiñe Zurutuza (Lazkao, 1979) Beasainen bizi da hamabi urte zituenetik. Enpresa eta Administrazio zuzendari-tzan lizentziatua da, eta Giza Baliabi-deak eta Enpresen Psikologia masterrak ere egin zituen. Ikastola ezberdinetan administrazio buru bezala eta Giza Baliabideen arduradun gisa Nafarroako Unibertsitateko Donostiako TECNUN egoitzan lan egin du orain arte. Hamar bat urte daramatza politikagintzan, Aralar alderdiko afiliatu gisa. Herrigintza mailan, Nazioen Mundua herri ekimeneko kide da.

Kultura eta euskara sailean legealdi honetan «lan asko egin dela eta lan asko egiten segitzeko asmoa» azaldu du. Aurrera eramanez diren honako proiektuak azpimarratu ditu: Usurbe antzokiko kudeaketa berria martxan jartzea eta herritarrei abonua eskaintzea,

ikasgelen zerbitzua asteburuetan ere irekitzea, herriko elkarteekin elkarlanean egindako egitasmoak (Bertsomovie-da, *ha2a.net*, Mintzodromoa...), Igar-tzako monumentu multzoaren erabilera-ren inguruko partehartze prozesua...

Krisialdi ekonomikoak «sorkuntzan ez du eragotzi» bere ustez, baina «eragina kontsumoan» ikusten ari dela dio. «Herriko proiektuak eta euskarari lotutakoak bultzatuko ditugu gehienbat», dio, eta «euskararen erabilera areagotzeko es-trategiak birpentsatu; euskara dakite-nak motibatu eta euskara erabiltzen ja-ri».

Horretarako, «kudeaketa planak» ja-riko dituzte martxan gelditzen zaizkien bi urteetan: 2013-2017 euskara bizibe-rritzeko plana diseinatu, udal barruko plana, kulturako mahaia sortu, urte ba-tzuetarako plan estrategikoa...



Garbiñe Zurutuza

La nueva concejala de Cultura y Euskara Garbiñe Zurutuza (Lazkao, 1979) opi-na que «en esta legislatura se ha traba-jado mucho» en lo respectivo a su área, y tiene la convicción de que seguirán ha-ciéndolo en los siguientes dos años. Para eso, están elaborando diferentes planes para impulsar el aprendizaje y el uso del euskara, además de diferentes planes estratégicos. Impulsarán los pro-yectos locales y, sobre todo, los que ten-gan relación con el euskara.

Idoia Baztarrika Ongizateko zinegotzi kargua hartuko du

“Auzoetara hurbilduko gara informazioa jaso eta ematera”

Idoia Baztarrikak (Beasain, 1973) Infor-mazio Zientzietako ikasketak burutu zi-tuen eta, egun, frantseseko eta hiritarta-suneko irakaslea da. Urte batzuk kaze-taritzan ere aritu da aurrez. Herrigintza mailan, besteak beste, Goierriko AHT Gelditu Elkarlanean aritu zen, abiadura handiko trenaren aurkako herri mugi-menduan.

Legealdi honetan Udalak egin duen lanaren inguruan «lan handia» egiten dela uste du, «herritarrei zuzeneko ha-rre» egiten zaielako «informazio, ba-lorazio eta aholkularitza emanez eta programa ezberdinak landuz».

Etkez-etxeko laguntzan pausoak ema-ten jarraitu da, Arangoiti egoitzako psi-kogeriatría unitate berria martxan jarri da hamabost plazarekin, garapen ara-

zoak dituzten adin-txikikoentzako la-guntzak sortu dira, ongizate saila saia-kera berezia egiten ari da zerbitzu so-zialen berri ematen... Horrela, epe labu-rrean, Beasaingo auzoetara hurbilduko dira informazioa eman eta era berean egon daitezkeen beharrak ezagutu eta erantzun ahal izateko.

Krisialdi ekonomikoaren aurrean Baz-tarrikaren iritziz, «momentu latzak bizi dituzten familien eta pertsonen ondoan egon behar du sail honek. Udal gober-nuak ez du gizarte arloko gastuetan mu-rrizketarik egin eta krisi garaian oso ga-rrantzitsua da hau». Horregatik, «aurre-kontuetan moldaketak egin» beharko direla aurreikusten du, besteak beste «2008an onartu zen gizarte zerbitzuen legearen aplikazioa datorrelako».



Idoia Baztarrika

Idoia Baztarrika (Beasain, 1973) será la nueva concejala de Bienestar Social. Ante los problemas que está creando la crisis económica, cree que «este área tiene que estar cerca de las familias y personas que están viviendo momentos duros» y que «por eso, el Ayuntamiento no ha hecho reducciones en temas so-ciales». Además, prevee cambios en los presupuestos para aplicar la ley de ayu-das sociales aprobada en 2008.

Beasain zero zabor norabidean

Europako birziklapen tasen helburuetara (% 80) iristeko norabidea hartu du Beasaingo Udalak; martxoaren 4tik aurrera, sarraila elektronikoarekin ireki beharko da edukiontzi marroia.

Aro berri bat hastera doa Beasainen, zero zabor garaia. Basain-ko Udalak hondakinen gaiari helduko dio; zabor gutxiago sortzea eta hondakinak birziklatzea baitu helburua. «Etorkizunari begiratu nahi diogu eta Europaren eskutik oinez ibili nahi dugu», esan du Koldo Agirre alkateak. «Europatik datozen zuzentarauetan oinarrituta, zero zabor politikak indarrean jarriko ditugu Beasainen».

Izan ere, Gipuzkoako Diputazioaren plagintzaren arabera, 2016rako % 60 birziklatu beharko da; eta Europako zuzentarauaren arabera, 2020rako % 80. Momentu honetan, Beasainen, % 40 inguru birziklatzen da. Era horretan, birziklapen datu hobeak lortzeko lan egingo du Beasaingo Udalak. «Gipuzkoan, gaur egun arte izan dugun birziklatze ereduak goia jo du, eta %40-%45eko topean ataskatuta dago». Beraz, birziklatze datu horietara iristeko ibilbidean, zero zabor norabidea hartu nahi du Beasaingo Udalak; hau da, hondakinak lehengai gisa tratatuz, «murrizketan, berrerabilpenean eta birziklatzean oinarritzea nahi dugu».

Hondakinen mahaia eta herritarrek hezi

Udal Gobernuak maila horretara iristeko, bilketa sistemaz gain, behar diren beste neurriak hartzeko konpromisoa

Egutegia

- **Martxoak 4:** Edukiontzi marroiei sarraila elektronikoa jarriko zaie.
- **Martxoak 4-8:** Sarraila elektronikoa lortu nahi dutenek udaletxera jo beharko dute. Sasietako langile bat bertan egongo da txartelak egiten eta berritzen. Aurretik ere txartela lortu nahi dutenek, Sasietara dei dezakete (943- 16 15 55).
- **Apirila:** Edukiontzi marroia erabiltzen ez dutenei zuzendutako kanpaina.

hartzen du. Besteak beste, zero zabor politika ezartzea. «Horretarako hondakinen mahaia izango da giltzarria. Mahai hori alderdi politikoekin eta herriko gizarte eragileekin osatuko dugu, eta bertatik bideratuko da hondakinen gaian landuko den plangintza».

• • Sei hilabetea sarraila elektronikoa bidez jasotako ondorioak aztertuko dira neurri berriak erabakitzeko • •

Zentzu honetan, prebentzio eta murrizketa mailan emaitzak lortzeko ekimen desberdinak jarriko dituzte martxan: sentsibilizazio kanpainak herritarren nahiz eragileen artean, hitzaldiak, autokonposta, auzokonposta; berrerabilpena bultzatzeko politika ezarri beharko da (poltsa berrerabilgarriak, ontziteria berrerabilgarria, bigarren esku-ko azokak...) eta birziklatzeko ahalegina biderkatu egin beharko da.

Bide honetan guztian, «herritar guztiek hondakinak sailkatzeko erraztasunak izan behar dituzte, denon ardurara baita denok sortzen dugun arazoa denon artean konpontzea». Gauzak horrela, Beasaingo Udalak organikoarentzako edukiontziaren sarraila elektronikoa jarriko ditu. Sistema honek, edukiontzi marroia nork eta noiz erabiltzen duen jakiteko aukera emango du. Martxoaren 4an bertan hasiko dira sarraila berriak jartzen.

Organikoaren bilketan izena emanda dauden herritarrek gutun bat jaso dute etxean, sistema berriaren inguruko informazioarekin. Une honetan Beasaingo familien %48k dauka edukiontzi marroia erabiltzeko giltza. Ehuneko hori igotzea da Beasaingo Udalaren helburua.

Bestalde, orain arte 5. edukiontzia erabiltzen ez duten familiei, «birziklatzearen aldeko erronkari hel diezaioten

Llega una nueva era a Beasain; llega la era del Zero Zabor (Basura Zero), con el objetivo de producir menos basura y reciclar lo máximo posible de lo que se produce. El Ayuntamiento quiere mirar al futuro y avanzar de la mano con Europa.

En Beasain se recicla alrededor el 40% y según el plan de la Diputación de Gipuzkoa, para 2016 se tendrá que reciclar un 60% y en Europa para el 2020 un 80%. Por tanto, el Ayuntamiento ve necesario trabajar para conseguir

Calendario

- **4 de marzo:** Nueva cerradura en los contenedores marrones.
- **4-8 de marzo:** Los que quieran la nueva tarjeta tendrán que ir al Ayuntamiento para hacerla o renovarla. Quien la quiera antes tendrá que llamar a Sasiet (943- 16 15 55).
- **Abril:** Campaña dirigida a personas que aún no utilicen el contenedor marrón.

mejores datos en lo que respecta al reciclaje.

Para establecer las políticas del Zero Zabor, desde el Ayuntamiento de Beasain se creará una mesa con todos los partidos políticos y asociaciones del municipio. Además, se pondrán en marcha diferentes campañas de sensibilización, charlas, autocompostaje, compostaje comunitario, políticas para la reutilización y se multiplicará el esfuerzo por reciclar. En ese camino, los contenedores marrones se abrirán a partir del 4 de



Enrike Enparantza, Aitor Larburu, Koldo Agirre eta Mari Mar Celaya.



Nola erabili

- **Ukitu** txartelarekin tapan dagoen pegatina. Soinu bat entzungo da.
- **Tapa altxatu**, poltsatxoa botu eta kitto.

eskatzien diegu, denon ardura baita birziklatzea, Beasain ederrago, garbiago eta iraunkorrago egiteko».

Funtzionamendua

Hondakin organikorako plastikoak hartzeko makinan erabiltzen den txartel bera da hemendik aurrera erabili beharreko txartela. Edukiontziaaren ahoan dagoen pegatutan txartela ipini eta edukiontzia desblokeatu egingo da. Behin

zabalik dagoenean, tapari goraka tira egin beharko zaio hondakin organikoak barrura botatzeko. Sarraila elektronikoren bitartez, nork eta zenbatero erabiltzen duen ikusiko da.

Hobariak

Organikoarentzako sistema berria martxoan bertan jarriko da martxan eta 6 hilabetez datuak bilduko dituzte «hobariak behar bezala diseinatzeko, bai

zenbatekoa zehazteko eta baita hobaria eskuratzeko baldintza minimoak ezartzeko ere». Beraz, orain, «lehendabiziko fase bat irekiko dugu birziklatzen dutenei hobaria emateko modurik egokiena eta justuena zein den aztertzeko». Azterketa fase honen ondoren, sistema egokia den edo ez ikusiko da eta «beharrezkoa izango balitz, sistema eraginkorra izateko neurri osagarriak proposatuko lirateke», gaineratu du alkateak.

marzo con una tarjeta que lleva un chip. Gracias a este sistema, se podrá saber quién y cuándo utiliza el contenedor marrón.

Las personas que ya utilizan el contenedor marrón han recibido una carta con información sobre este nuevo sistema. En este momento un 48% de las familias beasaindarras están apuntadas y el Ayuntamiento de Beasain espera que con esta nueva campaña se apunte más gente. La utilización de la nueva tarjeta será simple: Lo único que habrá que ha-

Cómo utilizar

- **Tocar** con la tarjeta la pegatina que hay encima de la tapa. Se oirá un ruido.
- **Levantar la tapa** y tirar la bolsa.

cer para abrir el contenedor será poner la tarjeta encima de la pegatina que hay en la boca del contenedor, tocarla y tirar hacia arriba.

Una vez que este sistema esté en funcionamiento, se recogerán los datos durante 6 meses para poder diseñar las bonificaciones adecuadamente. En esta primera fase se analizará cuál es la forma más adecuada y justa para bonificar a las personas usuarias del contenedor marrón.

Ilñigo Aranguren Loinaz Txirrindulari Elkarteko kidea

“Euskal Herriko Itzulirako 200 lagun beharko ditugu boluntario aritzeko”

Loinaz Txirrindulari Elkartea sortu zutela 50 urte betetzen dira aurten, eta urteurrena aprobetxatuz «zerbait berezia» egin nahi izan dute. Txirrindularitza oinarri hartu nahi izan dute horretarako, ezin zen bestela izan. Hala, Euskal Herriko Itzuliko azken bi etapak Beasainen izango dira, apirilaren 5ean eta 6an.

Noiz hasi zineten itzulirako beharrezko guztia prestatzen?

Lau bat hilabete izango dira dagoeneko lehen bilerak egiten hasi ginenetik. Goierriko herri gehienak pasatzen zituen ibilbide bat proposatu genien antolatzaileei, beraiek beste proposamen bat egin zuten, eta adostasun batera iristea izan zen lehen pausoa.

Nolako etapak izango dira?

Apirilaren 5ekoak 168 kilometro izango ditu, Eibarren hasi eta Beasainen bukatuta. Nuarbe pasata, Mandubiatik sartuko dira, eta behin hemen zirkuitu bat prestatu dugu, Ormaiztegi, Mutilloa, Zerain, Segura, Olaberria, Lazkao eta Beasain hartuko dituen. Apirilaren 6koa, itzuliko azkena, 24 kilometroko erlojuaren kontrakoa izango da, aurreko eguneko zirkuituko antzekoa.

Ikusleentzat politak eta txirrindularientzat gogorrak izango dira, beraz?

Oraindik ibilbide probisonala da, baina gogorrak izango dira bai, gain askoak. Ikusleentzat, berriz, eguraldi ona egiten badu gozatzeko modukoak. Beasaina eta eskualdera jende asko erakarriko dutela uste dugu, zerbitzu aldetik ondo komunikatuta dagoelako Beasain, eta onuragarria izango da denontzat.

Nolako izaten da halako ekitaldi baten prestakuntza?

Euskal Herriko Itzulia antolatzen dutenekin bi-hiru astez behin bilera egiten dugu, bi egun horietarako dena prest egon dadin. Finantziarioa ere behar da, eta azken asteetan horretan arituz gara. Hemendik aurrera, berriz, txostenak, opariak, boluntarioen antolaketa, beharrezko materiala lortzea... izango dira gure lehentasuna. Bilera asko egi-



Aranguren Beasaingo etapetako behin-behineko ibilbidea erakusten duten grafikoekin

tea eskatzen du, eta hemendik aurrera ere hala izango da; Itzulia Beasainen egongo den egunetan ere nahikoa lan izango dugu.

Horretan guztian laguntzeko prest dauden boluntarioak ere beharko dituzue.

Boluntariorik gabe ezingo dugu askorik egin. Guztira egun bakoitzerako 200 lagun inguru beharko ditugu, eta ez Beasainen bakarrik, proba igarotzen den gainontzeko herrietan ere bai. Jada jende asko agertu da laguntzeko prest, he-

rriko elkarte ugari, eta norbanakoak ere bai. Martxoaren 7an eta 8an bilera bana egingo dugu Loinaz Txirrindulari Elkartean, 20:00etan.

Boluntario izan gabe, nola lagundu dezakete herriarrek?

Laguntzeko prest dagoen jende guztia ongi etorria izango da, bai proba egunetan eta baita bestela ere. Herriko eta Goierriko denda, taberna eta enpresa asko ari dira laguntzen, bakoitzak ahal duen aletxo jarritz, eta edozein modutan dela ere lagundu nahi duenak elkartera edo gutako edonorengana jo dezake. Eskuak zabalik hartuko ditugu.

Elkartearen gainerako ekintzekin ere aurrera egingo duzue beste urte batez. Nola antolatzen zarete?

Elkartea bitan bereizita dago, nahiz eta gero oinarrian dena bat izan. Alde batek elkartea bera dago, eta bestetik txirrindularitzara bideratutako taldea. Euskal Herriko Itzulia prestatzeko batzorde bat sortu genuen, eta horrez gain, urtero elkarreak kirol arloan antolatzen dituen gainerako lasterketak ere antolatuko ditugu. Martxoaren 9an izango da lehen proba, eta urtea amaitu arte beste lau antolatuko ditugu.

•• «Las próximas reuniones serán el 7 y el 8 de marzo, dirigidas a todas las personas que quieran colaborar» ••

•• «Puede que las dos últimas etapas sean decisivas y el recorrido que hemos preparado es muy duro» ••

Badator Korrika 18!!

Martxoaren 14an, 22:50ean iritsiko da Korrika 18 Beasaina. Udalak ere parte hartuko du Korrikan; kilometroa erosi du

Bi urtean behin AEK-k antolatzen duen euskararen lasterketa, Korrika, martxoaren 14an hasiko da Andoaindik, eta aurreikuspenen arabera, egun berean, gaueko 22:50ak aldeira iritsiko da Beasaina. Udalak kilometroa erosi du eta Korrikan parte hartuko du. Herritarrek ere euskararen alde korrika egitera animatu nahi ditu. Martxoaren 14a iritsi baino lehen, giroa bertzeko, Korrika batzordeak hainbat ekitaldi antolatu ditu.

Como cada dos años, AEK ha organizado la iniciativa Korrika, que comenzará el 14 de marzo en Andoain, y llegará a Beasain ese mismo día (22:50). El ayuntamiento se ha unido a la causa por el euskera y a comprado un kilómetro, para recorrerlo junto a los beasaindarras.

Egitaraua:

- **Martxoak 2:** Arte eta literatura saioa, Goierriko Kastak antolatuta. 19:00etan, Igartzako jauregian.
- **Martxoak 5:** 'Ate irekiak' eta 'Euskara ikastea XXI. mendean' solasaldia Goiztiri Aek euskaltegian. 09:30-12:00 - 18:00-20:00.
- **Martxoak 9:** Eskualdeko afaria eta elkarte gastronomikoen arteko lehiaketa, plaza azpian. Ondoren, erromeria Aiko taldearekin.
- **Martxoak 14:** Korrika Txikia 15:00etan plazan. 18:00etan buruhandiak eta ondoren, triki poteoa.



Zuhaitzak erreta

Udaletik salatu dutenez, iaz, Zapartari kale inguruan bi zuhaitz nahita lehortu zituzten. Horietako bat ordezkatu da dagoeneko eta bigarrena, udaberrian nola berdetzen den ikusi behar da, erabakiren bat hartu aurretik. Horrelako ekintzarik ez errepikatzea espero du Udalak.

Según ha denunciado el Ayuntamiento, el año pasado, se secaron dos árboles a posta. Uno de ellos ya se ha reemplazado; con el otro, hay que esperar hasta primavera para ver cómo evoluciona.

El Ayuntamiento espera que no se repitan hechos similares.



Beasaingo Udalak irudi berria aurkeztu du

Beasaingo Udalen izaera berriaren adierazgarri izateko helburuarekin jaio da 'Gogo batez' leloa daraman ikur berria. Parte hartzea oinarri duen Udalen marka da; logotipoa, sinboloa eta leloaz osaturik dago. Sinboloa 'b' eta 'g' hizkiez eta sinadura marraz osaturik dago. Bi hizkiak, nola Beasain eta gogoa gainezarrita daude, elkartuta.

Irudi bezala, dinamismoa eta gizatasuna transmititzen ditu, 'g' hizkitik sortzen den sinadura marraren bidez. Bestalde, marra horrek leloa azpimarratu egiten du mezua indartuz. Lerroaren norabidea horizontal goranzkoa da eta gehi ikurra ere osatzen du; etorkizunerantz doana, eta baikorra. «Trazu aske honek aho bat ere erakusten du. Adierazteko ahoa izan daitekeena, edo irribarre, haserrik gabe eta elkarlanean egindako proiektuaren bermea izango baita zigilu hau».

Mezuari dagokionez, gauzak gogoz egiteak duen balioa azpimarratzen du batetik, eta bestetik, norabide bat indartzen du. «Helburu baterantz norabidetarik: gogoz, asmoak eta ekintzak».

El ayuntamiento de Beasain ha creado una nueva marca para potenciar la participación ciudadana. La marca está compuesta por dos palabras: 'Gogo batez' (todos a una). La letra 'G' y la 'b' se superponen y la raya que subraya ambas potencia el mensaje que se quiere transmitir. La imagen difunde dinamismo y humanidad, de una forma positiva, gracias a la raya que guía una sonrisa que viaja hacia un futuro donde se crearán proyectos nacidos de la participación.

Udaltzaingoaren 2012ko memoria

Udaltzaingoak 2012ko jardueraren datuen memoria aurkeztu du: Ikastetxeetako sarrera-irteeratan 2.208 zerbitzu eskaini zituen; hiletetan 108 zerbitzu; 33 egunetan trafiko kanpainak egin zituzten; 29 kirol probetan zerbitzua eman zuten; 52 istripu artatu zituzten eta garabia 16 alditan erabili zuten. Txosten osoa: beasain.net.

En la página web *beasain.net* se puede leer la memoria de la Policía Municipal del año 2012.

Tasen laguntzak

Ohiko etxebizitzako ur estolderia eta zabor tasen eta udal kiroldegia zen zerbitzuak erabiltzeagatik tarifa ordaintzeko laguntzak eska ditzakete Beasainen erroldatuta dauden eta udal ordenantzen baldintzak betetzen dituztenek. Eskaerak martxoaren 1etik 30era aurkeztu behar dira. Kiroldegikoen eskaerak, martxoak 15 baino lehen.

Ya se pueden pedir las ayudas para el pago de las tasas de agua, de alcantarillado y de basura de la vivienda habitual y para el pago de las tarifas de los servicios del polideportivo municipal. Las solicitudes se deberán presentar antes del 30 de marzo; en el caso del polideportivo, antes del 15 de marzo.

Martxoak 25: Berdintasun foroa

Martxoko azkeneko astelehenean, 25ean, 18:30ean, izango da Berdintasun foroaren hurrengo bilera, udaletxean. Emakumeek euren kezka eta beharrak azaltzeko gunea da. Horretaz gain, Udalean lantzen diren hainbat gaien inguruan ekarpenak egiteko aukera ere izaten da. Zezilia Herrador Berdintasun zinegotziaren arabera, «foroak ekarpen garrantzitsuak egingo ditu genero ikuspegitik eta bide batez, etorkinen integrazioa eta guztion heziketa ere landuko dira».

La próxima reunión del Foro por la Igualdad se celebrará el 25 de marzo, de 18:30 a 20:00, en el Ayuntamiento.

Udan haur atzerritarrak hartzeko diru laguntzak

Garatze bidean dauden edo ezbeharraren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurrak udan Beasaingo familietan harreraren hartzeko diru laguntzak emango ditu Udalak. Eskaerak martxoak 27 baino aurkeztu behar dira.

El Ayuntamiento de Beasain ayudará económicamente a las familias que acogen temporalmente menores procedentes de países en los que hayan acontecido catástrofes o en vías de desarrollo. Las solicitudes se deberán presentar en el, antes del 27 de marzo.

Bekak gazte laguntzaileentzat

Beasaingo gazteak beharrik handiena duten herrialdeetan garapeneko lankidetzak ekintzetarako sentibera-tzea eta gazteen artean herrialdeen eta kulturen elkartasun baloreak sustatzea du helburu Beasaingo Gazte Laguntzaileentzat Beka programak. Beasaingo 18 urtetik gorakoentzako beka da. Apirilaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira eskaerak. Oinarriak beasain.net webgunean daude.

El Ayuntamiento ha aprobado las bases para otorgar becas a jóvenes cooperantes de la localidad. Las bases están publicadas en *beasain.net*. Las solicitudes se deberán presentar antes del 30 de abril.

Festak antolatzen bilerak hasi dira



Udala eta herriko eragileak dagoeneko hasi dira Loinatz festak antolatzen. Bi bilera egin dituzte dagoeneko eta udal ordezkariak pozik daude parte hartzearekin. Besteak beste, festetako programan festetako egunak izendatzea proposatu zuten. Eragileen iritzia eta ekarpenak jasotzen ari da Udala.

El Ayuntamiento ha empezado a organizar las Loinatz festak. Toda persona o asociación que quiera hacer alguna aportación, puede escribir a la siguiente dirección: kultura@beasain.net.

Bareak-en Stock azoka eta lehiaketa

Azkeneko bi urtetan bezala, Beasaingo Merkataritza Elkartek stock azoka antolatu du martxoaren 16an eta 17an, goizez eta arratsaldean, Loinazko San Martin plazapean. Bestetik, Beasain eta tokiko merkataritza kanpaina ere egiten ari da Bareak, «Beasaingo jendea tokiko merkataritzarekin identifikatzeko helburuarekin». Horretarako, Beasaingo dendetan erosteak hobekien adierazten duen esaldia aukeratzeko lehiaketa antolatu du.



Como en años anteriores Bareak ha organizado la Feria de Stock. La feria se realizará el 16 y 17 de marzo, en los bajos de la Plaza San Martín. El horario del sábado es de 10.30-14.30h y de 17-20.30h; el domingo de 11-14.30h y de 17-19.30h. Además de la feria, Bareak ha organizado la campaña 'Beasain y comercio local'. Para ello ha organizado un concurso para crear una frase, la cual debe realzar lo que supone realizar las compras en los comercios locales.



Antzerki Garaia: Lingua Nabajorum

Antzerki Garaiko azkeneko antzezlanak ikusteko aukera izango da Beasainen: Tartean teatroa taldearen 'Lingua Nabajorum'. Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreek aurkeztuko dute martxoaren 8an, gaueko 22:15ean. Antzerki programaren hurrengo bi saioak Ordizian izango dira: martxoaren 15ean 'Pottola' eta apirilaren 5ean 'Gauerdian'.

El 8 de marzo se podrá ver la última actuación teatral dentro del Antzerki Garaia en Beasain. La obra será 'Lingua Nabajorum' y la interpretan Mikel Martinez y Patxo Telleria. Las siguientes obras del Antzerki Garaia serán en Ordizia: 'Pottola' el 15 de marzo y 'Gauerdian' el 5 de abril.

Bertsomovieda

Arrano kultur elkarteak, Beasaingo Udalaren eta Orkliren babesarekin, bigarren urtez antolatu du Bertsomovieda lehiaketa. Martxoaren 13ra bitartean, bakarrik ala taldean, gutxienez 7 segundoko bertsoren bat ageri den bideo bat egin eta bideoak partekatzeko webguneren batean zintzilikatu behar dira. Informazioa: www.bertsomovieda.com

Gazte sorkuntzarako eta produkzioarako lokalak erabiltzeko eskaera egiteko aukera

Antzizar kiroldegia atzeko sotoan gazte sorkuntzarako eta produkzioarako lokalak berriro dira. Aretoen erabilera eskuratzeko egitasmo edo proiektuen aurkezpen eskaera epea irekita dago. Erabilera norbanakoa nahiz taldean izan daiteke. Taldekideen % 50 Beasainen erroldatua egotea nahitaezkoa izango da. Beste baldintza bat, 16-30urte bitartekoa izatea da (taldekide guztien batazbestekoa kontuan hartuta). Udalaren webgunean dauden agiriak bete eta aurkeztu behar dira.

Martxoaren 16an ludoteka ibiltaria antolatuko dute Igartza auzoan

Herriko gune desberdinei garrantzia eman nahian eta ludoteka zerbitzuaren zabalkundea egiteko, martxoaren 16an ludoteka ibiltaria egingo da Igartzako oinezkoen pasealekuan. 11:30etik 13:00etara eta 16:30etik 19:00etara, mahai jolasak, aurpegi margoketak, eskulanak, ipuin kontalaria, jolas kooperatiboak, jolas erraldoiak, marrazketa txokoa, txilipurdi txokoa egingo dituzte.

Con intención de dar a conocer el servicio de la ludoteca, el 16 de marzo se realizará la ludoteca itinerante en el paseo de Igartza de 11:30 a 13:00 y de 16:30 a 19:00.



'Geltokiak edo Helduta entzuteko abestiak' liburuaren aurkezpena

Igartza literatur sariketaren uzta berria aurkeztuko du Goiatz Labandibar oartzuarrak martxoaren 20an, 19:00etan, Igartzako jauregian: 'Geltokia edo Helduta entzuteko abestiak'.

Europar barrena egindako ibilaldi baten tankeran egituraturako ipuin-bilduma honek, hamaika istoriotan zehar beste hainbat hiri ezagutaraziko ditu. Hendaia, Marseilla, Geneva, Venezia, Trieste, Ljubljana, Zagreb, Pula, Genoa eta Niza dira kontakizun hauetako agertokiak, eta hiri horietako tren geltokiek badute ipuinotoki toki esanguratsua. Izan ere, hiri batetik edo ipuin batetik besterako bidaiak egitea proposatzen zaigun liburu honetan, geltokiak beti dira istorio baten abiapuntu edo helmuga.

Egileak lortu du hiri bakoitzaren funtsa jasotzea eta istorio bakoitzari dagokion kolorea eranstea, guztietan gaiak ezberdinak izan arren: askatasuna, alde bakarreko maitasuna, errutina, tokiz kanpo sentitzen denaren sentimendua...

La escritora Goiatz Labandibar presentará el 20 de marzo la nueva cosecha de los premios literarios Igartza: 'Geltokiak edo Helduta entzuteko abestiak'. En esta obra la oartzuarra recopila un conjunto de viajes realizados por Europa, dándoles especial importancia a las estaciones de tren en las que comienza o termina cada uno de los viajes.



Emakumearen Nazioarteko eguna

8 ostirala

19:00-21:00 Asmuberen batzarra, abesbatza eta Musika Eskolako haurren emanaldia. Igartzako jauregia.

20:45 Afaria Batzokian. Antolatzailea: Batzokia.

9 larunbata

14:00 Bazkaria Xerberan. Antolatzailea: Asmube.

Erakusketa

Martxoaren 4tik 10era: pathcwork, hariekin egindako lanak eta margoen erakusketa. Igartzako jauregia. Antolatzailea: Asmube.

Martxoak 8: Loinazpeko ikasleek egindako kartelen erakusketa eta bideo emanaldiak loiazpen. Webgunean ikusteko aukera ere izango da.



Korrika 18 martxoaren 14an iritsiko da Beasaina, 22:50ean. Korrika kultureko egitaraua ikusi 9. orrian.

1 ostirala

18:00 Arkeologia zinema zikloa. Igartzako jauregia. Antolatzailea: Suhar arkeologi taldea.

7 osteguna

13:00 Antzerkia ingelesez eskolaumeentzat. Usurbe antzokian.

8 ostirala

22:15 Antzerki garaia: 'Lingua nabajorum' (Tartean teatroa). Usurbe antzokian.

9 larunbata

16:00 Mus txapelketa, Loinazko San Martin plaza azpian. Antolatzailea: Arrano Kultur elkarte.

21:00 Korrikako afaria, Loinazko San Martin plaza azpian. Antolatzailea: Korrika batzordea.

11 astelehena

17:30 Ipuin kontaketa: 'Hamaike ipuin eta bat gehiago'. Udal biblioteka.

15 ostirala

19:00 Hitzaldia: Ekonomia eskolak eta krisia. Hitzlaria: Baleren Bakaikoa. Igartzako jauregia. Antolatzailea: Lemniskata zientzia elkarte.

21:00 Bertso afaria Andoni Egañarekin eta Iñaki Apalategirekin. Loinazko San Martin plaza azpian. Antolatzailea: Batzokia kultur elkarte.

16 larunbata

08:00 Adineko pertsonentzat mendi irteera: Beasain-Zumarraga-Santa Barbara-Beasain. Antolatzailea: Aizkorri.

11:30-13:00 / 16:30-18:00 ludoteka ibiltaria, Igartzako oinezkoen pasealekuan.

16-17

Stock azoka. Loinazko San Martin plaza azpian. Antolatzailea: Bareak.

17 igandea

17:00 Irrien Lagunak: 'Laguntasunaren sekretuak'. Usurbe antzokian.

20 asteazkena

19:00 Liburu aurkezpena: 'Igartzako saria'. Igartzako jauregia.

21 osteguna

17:30 Ipuin kontaketa: 'Akabo!'. Udal biblioteka.

22 ostirala

19:00 Antzerki amateur: Beasaingo Institutuko ikasleak. Usurbe antzokian.



1 ostirala

19:00 Hitzaldia: Educación creadora.

21:30 Jangela begetarianoa.

23:00 Kontzertua: Colapso, Achtung!!, The Last Strength eta Screemers and Sinners.

15 ostirala

21:30 Jangela begetarianoa. Ondoren, Auzolanaren inguruko liburu baten aurkezpena eta mahai ingurua.

16 larunbata

22:30 Idiazabalgo Txomenane etxe okupatuaren aldeko kontzertua: Erantzun, Nerviosah, Annunaki, Revenge, Kaosarenerasoak eta R209.

22 ostirala

22:30 Kontzertua: Herstura eta Tooth. Ondoren, musika jartzaileak.


Erakusketak

Martxoak 1-10: Ernesto Che Guevara. Usurbe antzokiko erakusketa aretoan.

Martxoak 3 arte: Murumendi. Burdinarotik Aintzinarora erakusketa. Igartzako jauregia.

Martxoak 15-24: Eli Agirrerena eta Maider Urretabizkaiaeren pintura erakusketa. Usurbe antzokiko erakusketa aretoan.

Jarraitu Beasaingo udal informazioa Interneten, facebook eta twitter-ean



beasain egunez egun

Argitaratzailea: Beasaingo Udala

Helbidea: Loinazko San Martin plaza

Posta elektronikoa: udala@beasain.net

Telefona: 943 02 80 50

Webgunea: www.beasain.org

Diseinua: Bidera Zerbitzuak